

# Konponbidearen bidean, euskal presoak etxera

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak egin berri duen pausuk berebiziko garrantzia dauka gatazkaren konponbideari begira. Foro Sozialak egindako gomendioak kontuan hartu eta, eztabaida sakonaren ondorioz, eskenatoki berriarekiko konpromisoa eta bide politiko eta demokratikoekiko engaiamendua azaldu zuten.

**Gatazkaren ondorioak gainditzeko bidean, eta hau integrala izan dadin, EPPKk alde guztien pairamen eta mina aitortzeaz gain, presoek etxera bueltarako formula malguak bilatzeko konpromisoa ere adierazi zuten.**

Hala ere, konponbiderako aurrerapauso garrantzitsu honi Espainiar Estatuak berriro ere atzerapauso tamalgarriaz erantzun dio: posible egin duten bitartekariak espetxeratzea. **Berriro ere konponbidearen mesedetan egiten duten horiek zigortu dituzte**, bere momentuan Bateragunearekin egin bezala.

Beraz, ziklo politiko berri bat irekitzeko eta gatazkak zuzendu duen ziklo politikoa behingoz atzean uzteko Euskal Herriak pausok egiten dituen bitartean, Estatuak ziklo zaharrari kateaturik eusteko eta oraindik ziklo zaharrean gaudela sinistarazten ahalegiten da temati.

Presoen afera konpondu beharra dago. Urjentziakoa da. **Euskal Herria ez da normalkuntza politikora helduko Estatuak ehundaka preso politiko bahiturik mantentzen dituen bitartean**, korapiloa askatu beharrean sarekada berriez eta makroepaketek kartzelak betetzen jarraitzen duten bitartean. Salbuespenezko neurri politiko eta judizialak alde batera uztearekin bat, espetxe politika ere aldatu beharra dago eta erronka nagusietako bat da presoek eta euskal herritarren kontra erabiltzen den sakabanaketa politika ankerrarekin behingoz amaitzea.

Gatazkaren sorburu politikoak konponbide politikoa eskatzen du eta horretarako bidea, zalantzarik gabe, urtarrilaren 11ko manifestazioak utzi zuen argazkian daukagu. **Euskal Herriko eragile politiko, sindikal eta sozialen ardura da ibilbide orri integral eta sendoa markatzea, Estatuaren ezezkoa gainezkatuko duena.**

Baina hori bezain garrantzitsua da guk, herritarrok bide hori bultzatzea. Urtarrilaren 11ko argazkia argazki hutsean gelditu ez dadin eta hainbat jenderengan sortu zuen ilusioa kalkulu elektoralean alferrik gal ez dadin. **Gatazkaren ondorioak eta arrazoiak behingoz konpontzeko, premiazkoa da batez ere eremu politikoek konpromisoa eta akordio berriak eraiki ditzatela.** Horixe da momentu politikoak eskatzen duena eta herritarrok exijitzen dieguna: benetako bake eskenatokia eta proiektu politiko guztiak demokratikoki eta injerentzia barik defendatzeko benetako aukera erdieste.

Eskubide sozialak edota eskubide zibilak munduko herri guztietan eta sasoi guztietan langileriaren eta herriaren borrokaren emaitza izan diren eta diren bezala, **euskal presoek eta Euskal Herriari dagozkien eskubideak eskuratzea ere mobilizazio eta borrokaren emaitza izango dira.** Paper garrantzitsua daukagu, gu geu garela konponbidearen bidea hartzeko erabakia behartu behar eta ahal dugunak.



# En el camino de la resolución, euskal presoak etxera

El paso dado recientemente por el colectivo de presas y presos políticos vascos tiene una importancia crucial en la resolución del conflicto. En respuesta a las recomendaciones del Foro Social y tras un profundo debate, han puesto de manifiesto tanto su compromiso para con el nuevo escenario como para con los métodos políticos y democráticos.

**Avanzando en la resolución de las consecuencias del conflicto y para que dicha resolución sea integral, el EPPK, además de reconocer el sufrimiento de todas las partes, también pusieron de manifiesto su voluntad de buscar fórmulas flexibles e individuales para propiciar la vuelta a casa de las presas y presos políticos vascos.**

No obstante, el Estado Español ha respondido a este paso hacia adelante nuevamente con un deplorable retroceso: encarcelar justamente a las personas mediadoras que han hecho posible este avance. **Nuevamente castigan a quienes trabajan por la resolución del conflicto**, tal y como lo hicieron en su momento con Bateragune.

Es decir, mientras en Euskal Herria se dan pasos para abrir un nuevo ciclo político y dejar de una vez por todas un marcado por el conflicto, el Estado se empeña en mantenernos atados al viejo ciclo y en hacernos creer que nada ha cambiado.

Es necesario resolver la cuestión de las presas y presos políticos. Es urgente. **Euskal Herria no llegará nunca a una normalización política mientras el Estado mantenga cientos de presas y presos políticos secuestrados**, mientras, en vez de soltar el nudo siga apretándolo con más encarcelaciones y más juicios políticos. Junto con la necesidad de dejar de lado de una vez por todas las medidas de excepción políticas y judiciales, es necesario también cambiar de raíz la política penitenciaria y poner fin de una vez por todas a la dispersión que se utiliza tanto contra las personas presas como contra toda la ciudadanía de Euskal Herria.

El origen político del conflicto requiere una solución política y el camino para ello se encuentra, sin duda, en la fotografía que nos dejó la manifestación del 11 de enero. **Es responsabilidad de los agentes políticos, sindicales y sociales de Euskal Herria marcar una hoja de ruta integral y firme, que desborde la cerrazón del Estado.**

Pero tan importante como eso es que todas y todos nosotros empujemos para que se recorra ese camino, para que la fotografía del 11 de enero no se quede en eso y para que no se pierda en vano, entre cálculos electorales, la ilusión que creó en tanta gente. **Para que tanto las consecuencias como las razones del conflicto se solucionen de una vez por todas, es necesario que sobre todo el ámbito político tome compromisos y llegue a nuevos acuerdos.** Eso es lo que requiere el momento político y lo que exigimos desde la sociedad: un escenario de paz verdadero y la oportunidad de que todos los proyectos políticos sean defendidos democráticamente y sin ingerencias.

Tal y como la consecución tanto de los derechos sociales como los derechos civiles han sido en todas las partes del mundo y en todas las épocas fruto de la lucha de la clase trabajadora y de pueblo, **así también conseguir que se respeten los derechos de las y los presos políticos y los derechos de Euskal Herria será fruto de la movilización y de la lucha que llevemos a cabo.** Nos toca jugar un papel fundamental, ya que somos nosotras y nosotros quienes debemos y podemos conseguir que se tome la decisión de implicarse en el camino de la resolución.

